


Arriskua:

Gaitzen bat gertatzeko arriskua.



Zaurgarritasuna:

- Kalte jasateko edo zauritua izateko susceptibilitatea.
- Zauritua edo kaltetua izan daitekeela, edo lesioen bat jasan daitekeela.

Beraz, esan daiteke erorketen aurrean adinekoak zaurgarriago direla helduak baino, min handiagoa jasan dezaketelako.



Galzoria:

ARRISKATZEA:

Arriskua hartzea. Norbera edo/eta besteren bat galerak jasateko egoeran jartzea. (Latinetik dator: «risicare» = haitz edo arroka bati itzulinguru eginez nabigatzea)


GALZORIA:

Denborari loturik fenomeno batek kalte eragiteko duen ahalmena (kalte pertsonala eta materiala). Honela kalkulatzen da: hondamendia gertatzeko probabilitatea (arriskugarritasuna) bider zaurgarritasuna –ehuneko jakin batean– eta esposizioa (biktima-kopurua). Nazio Batuen Erakundeak emandako definizioa da.

ARRISKUAREN LEGEAK


Zenbat eta handiagoa kaltea, handiagoa arriskua.

Ibilgailu bat 30 km/h-ko abiaduran badabil, eta beste bat 60 km/h-ko abiaduran, bigarren ibilgailuak arrisku handiagoa izango du, istripua izango badu kaltea ere handiagoa izango delako.



Zenbat eta jende gehiago, arriskua handiago.

Bidaariak daramatzan autoaren eta barruan bidaariak dituen autobusaren artean, arrisku handiagoa du bigarrenak; izan ere, istripuren bat baldin badu, kaltea berbera izan arren, tartean jende gehiago izango da bigarrenetan.



Zenbat eta lasterrago agertu, orduan eta arriskutsuago.


20 urteren buruan paraplejia ekarriko duen gaixotasunak arrisku txikiagoa du, bat-batean paraplejia eragingo duen istripuak baino.



Arriskua, zaurgarritasuna eta galzoria:


Arriskua:

Arantza sartzeko aukera.



Zaurgarritasuna:

Arantza sartzen badut, horrek eragingo didan min-kopurua.



Galzoria:

Egunero kaktusaren albo-tik pasatzen baldin banaiz arantza sartzeko dudana probabilitatea.




Autoa, baldin oliorik gabe geratzen bada, erre dadin dagoen aukera.




Autoa zenbateraino erreko den (ea soilik pieza bat urtuko den, ea motorra urtuko den ala autoa osorik erreko den).



Hori gertatzeko probabilitatea.



Biriketako minbizia izateko aukera.



Zenbateraino naizen sentibera hori gerta dakidan.



Egunean zigarro-pakete bat erretzen badut hori gertatzeko dudana probabilitatea.



Arriskua ez dago substantzietan, garraiatzeko era ez seguruan baizik; hau da, arriskua ez da haurrari kopa puskatzeko aukera (zaurgarritasuna), kopa erortzeko aukera baizik. Hori gertatzeko probabilitatea (berrehun alditik behin erortzen zait) da galzoria.